

PELLO ZUBIRIA

Zor ordain ezinen auditoria behar da European bertan ere

Maiatzaren 6tik 9ra bitartean 3.000 pertsonak parte hartu dute Atenasen Zorrari eta Austeritateari buruzko Biltzarrean. Mundu osotik etorritako militanteek gomendatu diete Europako periferiakoei –Grezia, Portugal eta Irlandakoei– ez onartzeko kanpo zor bidegabearen ordainketarik. Nork esan behar zigun europarroi...

ARGENTINAREKIN ALDERATZEA, European hango *corralitoa* edo kiebraren antzeko zerbait suertatu zitekeela iradokitzea alegia, iseka egitea zen, edo hitzontzikeria apokaliptikotan aritzea. Hori atzo arte zen. Orain edozein egunkari serioren ekonomiazko orrietan aditu burutsuenek Argentina, Uruguai edo Ekuador aipatzen dituzte Grezia, Irlanda edo Portugalentzako eredutzat. Ordaindu ote ditzakete metatutako zorrak? Erreskatea zabaltzea komeni da? Ez ote da pentsatzen hasi behar horien zorrak berregituratzea, esan nahi baita hein batean barkatzea?

Atenasen *Conference on Debt and Austerity* delakoak bildu dituen 3.000 entzule eta 400 militanteek ere ahotan izan dituzte Argentina, Uruguai, Ekuador... baita Zimbabwe bera ere, baina ez bakarrik eredu teoriko gisan. Ondoko urteetan Europako herrialde periferikoetako jendeek nozitu lezaketan hondamendia ekiditeko ispilu bezala aztertu dituzte haien ereduak.

Britainia Handiko *Red Pepper* aldizkarian Nick Deardenek idatzi duenez, “Brasil, Peru, Filipinak, Maroko, Argentina eta bestetako ekintzaileek greziarrei esan diete gogor eusteko, bestela 30 urteko atzeraldi suntsigarria datorkiela eta Nazioarteko Diru Funtza bezalako erakundeekiko morrontza”.

Munduan 1980ko hamarkadatik aurrera ikusita dago zein diren orain Grezia, Irlanda eta Portugal beren zorrak ordaintzeko ezartzen zaizkien politiken benetako ondorioak. Zambia batean zorra bi halakotu egin zen, eta ekonomia hondoratu. Argentinan NDFaren botikak ez zuen lortu egoera okertzea besterik; azkenean 2001ean kiebran sartu behar izan zuen Buenos Airesko gobernua.

Europako herrialde batzuek zorrak sekula pagatu ezingo dituztela sinesteko ez dago altermundialista izan beharrik. Georgios Papandreu lehen ministro greziarrak aitortu du kasik horretara helduak direla. Irlandakoari dagokionez, Morgan Kelly ekonomialariak aspaldi abisatua die bere erkideei. Baina Atenasen bilduak haratago zihoazen analisisan.

Atenasen onartutako manifestua honela hasten da: “Gu, mundu osotik etorritako ekintzaileak eta mugimenduen ordezkariak, Atenasen bildu gara aztertzeraren lehen gertatutako krisi ekonomikoak, lege kontrako zorrari aurre egin eta hori balio gabetu dadin mobilizatzeraren eskaintzera gure solidaritatea Europako jendearekin NDFak eta Europar Batasunak inposatu dituzten austeritate programa bidegabeen kontra daraman borrokan, eta baita ere prestatzera plan ekonomiko bat

Interneten aurkitu dugun marrazki honen esanahia –jabearen aztarnarik ez dugu lortu– bistakoa da: Greziako herritarra abiadura betean doan krisiak zanpatu duenean, zauriak artatzera datorkio Alemaniako lehen ministro Angela Merkel txofer daraman larrialdiko zilindroa, Nazioarteko Diru Funtzaren markakoa. Greziaren, Irlandaren, Portugalen... eta menturaz laster Espainiaren zorra auditatzea eskatu zen maiatz hasieran Atenasen. Han bilduak mintzatu ziren European gero eta gehiago aipatzen den Zorren Epaitegi baten beharraz ere, baina gauzak zuzentasunez egitekotan, hark baldintza batzuk bete beharko lituzkeela argitu zuten: neutral izatea, NDFren kontrolpetik askea; zorra osotasunean ikertzea, haren zilegitasuna barne; herritarrei zabalik egotea; eta ordainketen etena berehala erabakitzeak ahalmena edukitzea.


herritarren beharrei erantzungo diena, elite sozial txiki bati mesede egiteko partez”.

Atenasko biltzarra mugiarazi dutenen artean mundu mailako erakundeak daude, hala nola CADTM Hirugarren Munduaren Zorra Balio gabetzeko Batzordea –gehien bat ATTAC siglengatik ezagunagoa–, eta zenbait talde lokalago. Espainiatik Observatorio de la Deuda en la Globalización erakunde aritu da.

Bertaratutako pertsonaien artean arreta berezia egin zitzaion Sofia Sakorafaren hitzei. Greziako parlamentari honek agintean dagoen PASOK alderdia utzi zuen gobernuak erreskatea onartu zuenean. Bileraren mamia honela laburbildu zuen: “Tiraniari, zampaketari, bortizkeriari eta gehiegikeriari erantzuteko bidea informazioa da”.

Zorren erresuma

Atenasen salatu zenez, Europako periferian krisian diren herrialdeak itotzerainoko zorretan sarrarazteko NDFk, Europar Batasunak eta munduko korporazio handiek erabili dituzte aurretik, 1970eko hamarkadatik, herrialde txiroetan usatutako antzeko formulak: ustelkeriaz erosi politikoak onartu zitzen azpiegitura erraldoiak, finantzen arauak arindu etxegintzarena eta zorpetzearena bezalako burbuilak eraginez, arme-



tan inbertsio handiak –Greziaren kasuan, eskandalagarria– eta abar.

Orain, 1929az geroztiko krisirik handiena lehertu denean, Europar Batasuneko buruzagiak politika ekonomiko osoa antolatu dute kapitalaren mesederako. Atenasko agirian diotenez, Egonkortasun Itunak eurogune osoan langileak estutzen ditu, Europako Banku Zentralak banku handien interesak babesten dituen bitartean. Europar Batasunean bereizi egin dituzte erdigune sendoa eta periferia ahula. Periferiak zorrak handitu ditu ez bakarrik erdigunearekiko daukan etenagatik, baizik eta baita ere lekuko aberatsen eta gainerako herritarren arteko eten gero eta sakonagoagatik. Orain zorrak ordaindu behar dituzte langi-

leek eta langabeek, nekazari txikiek, enpresa txiki eta ertainek, hain zuzen zorrei etekinik atera ez dietenak.

“Austeritate eta pribatizazio neurriek –dio agiriak– gizarteko pobreenak estutuko dituzte gogorrenik, eta bitartean krisia sortu duten haiek erreskatatuko dituzte. Euroaren aldeko Itunak langileen gaineko presioa larriagotuko du. Aberatsek eta enpresa handiek jarraituko dute saihesten zergak, gizarte justuago bat eraikitzeko behar liratekeenak. Ez badiogu neurri horiei aurre egin, Europar sekulako eragina izango dute indarren balantza kapitalaren mesederako eta langileen kalterako”.

Salaketaz eta mobilizazioaz gain, hiru mailako erantzuna proposatu

da Atenasen, Europan indarrean diren politiken kontra. Batetik, herrialdeen zorren auditoriak egitea, erabakitzeko zor publiko horretatik zenbat den legearen kontrakoa, bidegabea, gorrotagarria edo, besterik gabe, ezin pagatuzkoa.

Bigarrenik, krisiari erantzutea burujabetzatik eta demokraziatik, ez kontrolik gabe agintzen duten Europar Batasunetik edo NDFetik. Herrialde batek eskubidea dauka ordainketen moratoria ezartzeko, Nazio Batuen Erakundeak berak legekotzat jotzen du derrigortua dagoenarentzako.

Hirugarren, ekonomiaren berregituraketa. Neoliberalismoaren aurrean, trantsizio programak: bankuen kontrola eta behar izanez gero jabetza; industria politika berria inbertsio publikoan eta sektore estrategikoen kontrol publikoan oinarritua; zergen berrantolaketa kapitalak eta aberatsen gehiago pagatu dezaten, berriz indartzea jardura soziala osasungintzan, hezkuntzan, garraioan, pentsioetan...

Aurreko puntuotan euskaldunari deigarriena gerta dakioke zor publikoaren auditoria eskaria. Hau herrialde txiroagoetan proposatu izan da –2007ko urtarrilean eskaini zitzaion NET HURBIL bat–... baina Europan? Atenasen azaldu zen sindikatu, mugimendu sozial eta militanteen artean nola jarri dezaketen martxan horrelako auditoria bat. Bada eskuliburu bat horretarako.

Atenasen aurkeztu *Debtocracy* dokumentala *YouTube*n ere ba dago. Balizko espainoloi komeni zaigu ikustea: zenbait adituk udazkenerako iragarri du gure erreskatea. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira